

## GestDropper, Vitoria-Gasteizek IRRIGESTLIFE proiektuan garatu duen ureztatze sistema



Vitoria-Gasteizko parke eta lorategiak bertoko zenbait enpresak sortu duten ureztatze sistema adimentsu eta berritzaile bat garatzeko probaleku bihurtu dira. Europar Batasunaren LIFE Programaren bidez kofinantziatu den IRRIGESTLIFE proiektua izan da **GestDropper** deitzen den sistema hori sortzeko erabili den markoa.

2014. urteko ureztatze sasoiaren ekin zitzaien GestDropper parkeetan instalatzeari eta sistemarekin probak egiteari. 2015eko sasoiaren sistema osoaren azken doikuntzak egingo dira.

Hirian instalatu diren gailuak lau mota desberdinetakoak dira (hiru sarearekin konektatuta funtzionatzen dutenak eta bat autonomoa). Mota bakoitza eratzten duten osagaiak ez dira bereziak: dendetan erosi daitezke libreki. Horri esker, hardwarearen fabrikazioa oso erraz errepika daiteke beste hiri eta egoera batzuetan. GestDropper lizentzia irekia duen ureztatze sistema da, eta ez da ez marka komertzialen ez patenteen mendekoa.



IRRIGESTLIFE proiektuari buruzko informazio gehiago: <http://www.irrigestlife.eu>

### Sistema berritzailea

Proiektuaren berrikuntzak honako hauek dira:

- Ureztatze kontrolagailu desberdinen kudeaketa bateratu da.
- Fabrikatzaile bakarren mendekoa ez den sistema irekia sortu da.
- Udal ordenagailuetara konektatutako sistema eratu da telekudeaketako sistemari lotutako software komertziala erosi behar izan gabe.
- Denbora errealeko urrutiko kontrola garatu da, ihesak, istripuak, etab. daudean berehala esku hartzea ahalbidetzen duena.
- Uraren erabilera optimizatzea ahalbidetzen duen kudeaketa adimentsua sortu da: parametro meteorologikoen eta aldagai agronomikoen arabera programazio desberdinak sor daitezke.
- Hiriko gune bakoitzeko baldintza mikroklimatikoetara molda daiteke sistema, beharrezkoa bada.
- Udalaren beste arlo batzuekin (herrilanak, azpiegiturak, trafikoa...) koordinatutako kudeaketa sortu da, Udalaren Bide Publiko Digitalean integratutako garapenari esker.
- Garatu den datu sarea beste aplikazio batzuetarako erabil daiteke, esaterako hiri adierazleak denbora errealean kalkulatzeko.

### Proiektuaren datuak

Gaur egun Vitoria-Gasteizko 230 hektarea berdegune ureztatzen da 359 programatzaile eta 3.998 ureztatze elektrobalbula bidez. GestDropper azalera horren erdian (116 hektareatan) aplikatu da, hiriko 5 gune handitan banatuta. Guztira 115 programatzaile eta 1.677 elektrobalbula egongo dira sistemak kontrolatuta.

## Ur zikinen araztegi berriak Administrazio Batzordeetan

AMVISAK lehengo maiatzean **Amarita eta Mendozako araztegiak** abian jarri zituen. 100 eta 150 bitanleen ur zikinak arazteko edukiera dute, hurrenez hurren.

Biak tratamendu biguneko araztegiak dira. Horretarako, landareak (mikrofitak) erabiltzen ditu, instalakuntzarik eta elektrizitatearen kontsumorik gabe, ingurumena errespetatuta. Gainera, modu errazean mantentzen eta kudeatzen dira. Ekaineko arazketaren lehenengo emaitzak eta tratatutako uraren kalitatea onak izan dira.

Lan eta Zerbitzuen Foru Planaren barruko jarduera hauetan egindako inbertsioa 155.000 eurotik gorakoa izan da Amaritan eta 1.550.000 eurokoa Mendozan (BEZ gabe). Azken herrigune honi dagokionez, banaketa sareak berritzeko lanak barne hartu dituzte.



Amarita araztegia

### IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?

Posta elektronikoz egin dezakezu. Hauxe da helbidea: [info@amvisa-futura.org](mailto:info@amvisa-futura.org)